DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGAJn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko Otsailaren 22an egindako ohiko bilkuran, adierazpen hau onartzea erabaki du, gehiengoz, Bozeramaileen Batzordeak:

*"Joan den ekainean onetsi zen Europako Parlamentuaren 2021eko ekainaren 24ko Ebazpena, Europar Batasuneko osasunaren eta sexu- eta ugalketa-eskubideen egoerari buruzkoa, emakumeen osasunaren esparruan emana. Ebazpen horren abiapuntua da sexu- eta ugalketa-eskubideak giza eskubide gisa daudela babestuta giza eskubideen nazioarteko eta Europako zuzenbidean —hala nola Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunean eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean, Emakumearen aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioan eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmenean—, eta eskubide horiek osasun-prestazio integral baten funtsezko elementu direla, emakumeen oinarrizko eskubideak direla eta inola ere ezin direla eskastu edo kendu. Hala, bada, hertsatuki eskatzen die estatu kideei berma dezatela abortuaren praktika seguru eta legezkoa, emakumeen osasuna eta eskubideak oinarritzat hartuta. Era berean, estatu kideei eskatzen die abortuaren praktika seguru eta legezkorako sarbide unibertsala bermatzeko eta askatasunerako, intimitaterako eta ahalik eta osasun-arreta onena izateko eskubidea errespetatzeko.*

*Osasunaren Mundu Erakundeak diskrezioz jardutea gomendatzen dio osasun-zentroaren inguruneari, emakumeen konfidentzialtasuna, erabaki askea eta abortu segururako eskubidea bermatzeko; eskubide horiek, ordea, kolokan jartzen dira emakumearen haurdunaldia eteteko*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 22 de febrero de 2022, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

*"El pasado mes de junio se aprobó la Resolución del Parlamento Europeo, de 24 de junio de 2021, sobre la situación de la salud y los derechos sexuales y reproductivos en la Unión, en el marco de la salud de las mujeres. En ella, partiendo de que "los derechos sexuales y reproductivos quedan protegidos en cuanto derechos humanos en el Derecho internacional y europeo de derechos humanos, por ejemplo en el Pacto Internacional de Derechos Civiles y Políticos y el Pacto Internacional de Derechos Económicos, Sociales y Culturales, la Convención sobre la Eliminación de Todas las Formas de Discriminación contra la Mujer y el Convenio Europeo de Derechos Humanos, y constituyen un elemento esencial de una prestación sanitaria integral; que los derechos a la salud, en particular a la salud reproductiva y sexual, son derechos fundamentales de las mujeres que deben reforzarse y no pueden, en modo alguno, ser debilitados ni retirados"; se insta a los Estados miembros a garantizar una "práctica segura y legal del aborto basada en la salud y los derechos de las mujeres". Así mismo, pide a los Estados miembros "que garanticen el acceso universal a una práctica segura y legal del aborto y el respeto del derecho a la libertad, a la intimidad y a la mejor atención sanitaria posible".*

*La Organización Mundial de la Salud recomienda dotar de discreción al entorno del centro sanitario para asegurar la confidencialidad de las mujeres, su libre decisión y su derecho a un aborto seguro, egiten quedan en entredicho a causa de actos molestos, ofensivos, intimidatorios o coactivos*

10740n XVII

*erabakian eragiteko asmoz diren ekintza gogaikarri, iraingarri, larderiazko edo hertsagarrien ondorioz.*

*que pretenden influir en la decisión de las mujeres de interrumpir su embarazo.*

*Espainian, sexu- eta ugalketa-osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoak aitortzen eta arautzen du haurdunaldia borondatez eteteko eskubidea, eta lege horrek Espainiako herritarren adostasun eta babes handia du.*

*En España, el derecho a la interrupción voluntaria del embarazo está reconocido y regulado por Ley Orgánica 2/2010, de 3 de marzo, de salud sexual y reproductiva y de la interrupción voluntaria del embarazo, que goza de gran consenso y apoyo de la ciudadanía española.*

*Hala ere, antolatuta dauden eta ahalmen ekonomiko handia duten hainbat talde ultrakontserbadore jazarri egiten zaizkie, bai eta eraso egiten ere, hala emakumeei nola abortatzeko bidea ematen duten profesionalei. Modu horretan, oztopatu egiten dute gure ordenamendu juridikoan aitortutako eskubide bat baliatzea.*

*Sin embargo, grupos ultraconservadores, organizados y con gran capacidad económica, acosan y hostigan a las mujeres y a los profesionales que lo facilitan, obstaculizando así el ejercicio de un derecho reconocido en nuestro ordenamiento jurídico.*

*Zigor Kodearen 417 bis artikulua aldatzen duen uztailaren 5eko 9/1985 Lege Organikoak hiru kasutan despenalizatzen du abortua. Bada, hura onetsi zenetik, etengabeko jazarpena jasaten dute emakumeei haurdunaldia haien borondatez eteten dieten osasun-zentroek, eta gaur egun ere errealitate bat da hori.*

*El acoso a los centros sanitarios donde las mujeres interrumpen voluntariamente sus embarazos es una constante desde la aprobación de la Ley Orgánica 9/1985, de 5 de julio, de reforma del artículo 417 bis del Código Penal, por la que se despenalizaba el aborto en tres supuestos, y sigue siendo, hoy, una realidad.*

*Horregatik guztiagatik, beharrezkotzat jotzen dugu Diputatuen Kongresuan lan egitea, delitu izan dadin haurdunaldia borondatez etetea erabakitzen duten emakumeei jazarriz aitortutako eskubide bat baliatzeari oztopoak jartzea.*

*Por todo ello, consideramos necesario trabajar en el Congreso de los Diputados para que sea delito obstaculizar el ejercicio de un derecho reconocido, como es la interrupción voluntaria del embarazo, mediante el acoso a las mujeres que toman esa decisión.*

*Hori horrela, hertsatuki eskatzen dugu Zigor Kodea aldatzeko, gure herrialdean eskubide hori aitortuta dagoen aldetik. Erreforma horrekin, eskubide hori askatasunez baliatu ahal izatea babestu nahi dugu.*

*Por ello instamos a que se modifique el Código Penal porque en nuestro país, el derecho ya está reconocido. Lo que se persigue proteger con esta reforma es su ejercicio en libertad.*

*Hori dela eta, Donostiako Sozialistak PSE-EE taldeak erakunde-adierazpen hau aurkezten du:*

*Es por ello que el grupo Socialistas Donostiarras PSE-EE presenta la siguiente Declaración Institucional,*

*1. Donostiako Udalbatzak arbuiatu egiten ditu haurdunaldia borondatez eteteko kliniketara jotzen duten emakumeen kontrako jazarpen, larderia edo askatasun-urraketa guztiak, eta, horrenbestez, jazarpen-jokabide horiek*

*1. El Ayuntamiento de San Sebastián rechaza cualquier tipo de acoso, intimidación o vulneración de la libertad de las mujeres que acuden a clínicas para la interrupción voluntaria del embarazo, con ello, se muestra favorable a la*

*zigortzeare aldeagertzen da.*

*2. Donostiako Udala, bere eskumenen esparruan, sexu-hezkuntzarako eta nahi gabeko haurdunaldien prebentziorako programak ezartzeareen alde dago".*
==============================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko martxoaren 2an.

*penalización de dichas conductas de acoso.*

*2. El Ayuntamiento de San Sebastián en el ámbito de sus competencias se muestra favorable a la implementación de programas para la educación sexual y prevención de embarazos no deseados".*
==============================

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 2 de marzo de 2022.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**